# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**2667**

AGINDUA 2011ko apirilaren 20koa, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua egitea arautzen duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak ezartzen ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu ez duten hamasei urtetik gorako ikasleentzat. Horrela espero da ikasleak eskola goiz ez uztea, prestakuntzako eta kualifikazioko iguripenak zabaltzea eta haien lan-munduratzea erraztea.

Gazte-talde horren egoera eta ezaugarriak nahikoa arrazoi dira adierazitako programak abian jartzeko. Izan ere, haien berariazko premiei erantzutera bideratutako eta antolatutako oinarrizko lanbide-prestakuntza eskaini nahi zaie, kasuan kasuko gizarte-, kultura- eta produkzio-inguruneak kontuan harturik.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren 29. artikuluan Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen oinarrizko alderdiak azaldu dira. Artikulu horretako 9. puntuak adierazten duenez, praktika-aldia lantokietan egiteko fasea gauzatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle horien ezaugarrietarako egokituko du Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetako Lantokiko Prestakuntzako modulua egiteko modua arautzen duen uztailaren 8ko 156/2003 Dekretua.

2008ko ekainaren 10eko Aginduak, berriz, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrez gain, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan parte hartzen dutenek Lantokiko Prestakuntzako modulua, hau da, enpresatan praktikak nahitaez egin beharra ezartzen du aipatu Aginduak.

Lantokiko Prestakuntza modulu hori garatzeko, nahitaezkoa da ikastetxearen eta lantokiaren arteko etengabeko koordinazioa. Ondorioz, Dekretu horretan, batetik, toki-entitateen, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta ikastetxe publiko eta pribatuen eta, bestetik, lantokien (enpresen edo lantegien) arteko harremanak ezartzen dira, baita esku hartzen duten eragileen funtzioak ere.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**2667**

ORDEN de 20 de abril de 2011, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la realización del Módulo de Formación en Centros de trabajo (FCT), en los Programas de Cualificación Profesional Inicial.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, con el fin de evitar el abandono escolar temprano, abrir expectativas de formación y cualificación posterior y facilitar el acceso a la vida laboral, establece Programas de Cualificación Profesional Inicial destinados a alumnos mayores de dieciséis años que no hayan obtenido el título de Graduado en educación secundaria obligatoria.

La situación y características particulares de este grupo de jóvenes justifica la puesta en marcha de los referidos programas, con el objeto de ofrecerles una formación básica y profesional concebida y ordenada para atender sus necesidades específicas, teniendo en cuenta el contexto social, cultural y productivo en el que se desenvuelven.

El Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en el País Vasco, en su artículo 29, hace referencia a los aspectos fundamentales de los Programas de Cualificación Profesional Inicial. El punto 9 del mencionado artículo indica que para la realización de la fase de prácticas en los centros de trabajo, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación adaptará a las características de este alumnado el Decreto 156/2003, de 8 de julio por el que se regula la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT) en los Ciclos Formativos de Formación Profesional.

La Orden de 10 de junio de 2008, BOPV de 9 de julio, regula los Programas de Cualificación Profesional Inicial en la Comunidad Autónoma del País Vasco y establece de forma obligatoria para todos estos programas una fase de prácticas en empresa denominada módulo de Formación en Centro de Trabajo.

El desarrollo de este Módulo de Formación en Centro de Trabajo, precisa de una coordinación continuada entre el centro educativo y el centro de trabajo. En consecuencia, en la presenta Orden se establece la regulación de las relaciones entre las entidades locales, entidades sin ánimo de lucro, centros ordinarios públicos y privados por un lado, y el centro de trabajo (empresas o talleres) por el otro, y las funciones de los agentes que intervienen.

Hori guztia gauzatzeko, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beraz, kostu ekonomiko gehigarriak sortuko zaizkie hezkuntzako parte-hartzaileei eta enpresa laguntzaileei. Kostu horiek enpresetako instalazioen eta langileen erabileraren ondoriozkoak izango dira, baita ikasleak enpresetara eramatearen ondoriozkoak ere.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsiak, VI. tituluan xedatu duenarekin bat etorriz –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruko diru-laguntzak arautu baititu–, honako hau

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea da:

a) Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan eta lantegietan gauzatzeko baldintzak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak arautzen dituen 2008ko ekainaren 10eko Aginduaren 8. artikuluan ezartzen den bezalaxe, baita moduluaren garapenean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza-harremanak arautzea ere.

b) Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan edo lantegietan gauzatzeko laguntza-programaren esparrua ezartzea.

I. KAPITULUA
PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN JARDUERAK

***2. artikulua.***– Aplikazio-esparrua.

Agindu honen aplikazio-eremuaren barnean hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak emateko baimen ofiziala duten toki-entitateak, irabazteko asmorik gabeko entitate pribatuak eta ikastetxe publikoak zein pribatuak.

***3. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan eta lantokietan garatzeko alderdi orokorrak.

1.– Modulu honen xedeak lagungarriak izango dira:

– Ikasleen prestakuntza sustatzeko, lanbidearekin lotzen diren produkzio-esparruko egoeretan modu aktiboan parte hartzearen bitartez.

– Ikastetxearen eta produkzio-sektore bateko edo batzuetako antolakundeen arteko harreman-esparru zehatza eskaintzeko, eta, horrela, elkar ezagutzea eta prestakuntzaren koordinazioa bultzatzeko.

La realización, seguimiento y evaluación de esta actividad conlleva unos costes económicos adicionales, tanto a los participantes y las participantes de la parte educativa como a las empresas colaboradoras. Estos costes son derivados de la utilización de las instalaciones y personal de las empresas, del traslado del alumnado a las mismas.

Por ello, de conformidad con lo establecido en las disposiciones contenidas en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1977, de 11 de noviembre, referente a la regulación de las subvenciones en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Constituye el objeto de la presente Orden:

a) Regular las condiciones en que se materializa el módulo de Formación en Centro de Trabajo en empresas y talleres, tal como se establece en el artículo 8 de la Orden de 10 de junio de 2008, por la que se regulan los Programas de Cualificación Profesional Inicial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las relaciones de colaboración entre los distintos agentes que intervienen en su desarrollo.

b) Establecer el marco del programa de ayudas para el desarrollo del módulo de Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres.

CAPÍTULO I
ACTUACIONES DE LOS AGENTES INTERVINIENTES

***Artículo 2.***– Ámbito de aplicación.

Quedan incluidos dentro del ámbito de aplicación de la presente Orden las entidades locales, las entidades privadas sin ánimo de lucro, y los centros educativos públicos y privados, radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco y autorizados oficialmente para impartir los programas de Cualificación Profesional Inicial.

***Artículo 3.***– Aspectos generales de la Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres.

1.– Las finalidades de este módulo contribuirán a:

– Promover la formación del alumnado por medio de su participación activa en situaciones de ámbito productivo relacionadas con la profesión.

– Proporcionar un marco concreto de relaciones entre el centro educativo y las organizaciones de un sector o sectores productivos, favoreciendo el conocimiento mutuo y la coordinación de la formación.

– Ikaslea lan-esparruan eta haren harreman-sisteman integratzeko eta, hala, esparru horiek hobe ezagutzeko.

2.– Prestakuntza fase hori inoiz ere ez da eskulanaren hornikuntza edo ordezkapentzat joko, nahiz eta ikasleak bere ikasketak jartzen dituen eta benetako lantokietan garatzen dituen trebetasunak.

3.– Bete beharreko funtzioak betetzeko, Hezkuntzako Ikuskatzailetzak toki-entitateen, irabazteko asmorik gabeko entitate pribatuen eta ikastetxe publiko eta pribatu arrunten mendeko zentroetara sartu ahal izango da, baita hezkuntza-administrazioak baimendutako jarduerak garatzen diren instalazioetara eta zerbitzuetara ere.

4.– Lantokiko Prestakuntza hori emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun-aukeraren printzipiora egokitu beharko da.

***4. artikulua.***– Enpresetan edo lantegietan bete beharreko Lantokiko Prestakuntza fasearen egutegia eta ordutegia.

1.– Toki-entitateek, irabazteko asmorik gabeko entitateek eta ikastetxe publiko eta pribatu arruntek, haien autonomiaz baliatuta, Lantokiko Prestakuntza moduluaren garapena antolatu eta planifikatuko dute Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa bakoitzerako.

2.– Egutegia eta ordutegia:

– Lantokiko prestakuntza fasea, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programaren parte gisa, ikasturte bakoitzeko eskola-egutegian ezarritako hasierako eta amaierako daten artean garatu beharko da oso-osorik. Horrenbestez, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programaren bigarren kurtsoa amaitzeko aurreikusitako dataren aurretik garatu, ebaluatu eta kalifikatu beharko da fase hori.

– Astelehenetik ostiralera egingo da, enpresaren herriko jai-egunetan izan ezik, eta astean gehienez ere 35 ordu izango dira.

– Eguneko ordutegia 3 eta 8 ordu bitartekoa izango da, eta txandak, berriz, goizekoak edo/eta arratsaldekoak. Inola ere ez da egingo gaueko txandan.

3.– Era berean, Lantokiko Prestakuntza fasea ezin izango da bereziki nekagarri edo/eta arriskutsutzat jotzen diren lanpostuetan egin.

4.– Lantokiko Prestakuntzako moduluaren orduen % 10, gehienez, erabili ahal izango da lantokiko tutorearekin edo/eta instruktorearekin bilerak egiteko eta ikastetxean bestelako prestaketa-jarduerak egiteko.

– Integrar al alumnado en el ámbito laboral y en su sistema de relaciones con objeto de favorecer su conocimiento por parte de éstos y éstas.

2.– Esta fase de formación, en ningún caso se entenderá como provisión o sustitución de mano de obra, aunque el alumnado aporte su aprendizaje y desarrolle sus competencias en puestos de trabajo reales.

3.– Para el ejercicio de sus funciones, la Inspección Educativa tendrá acceso a los centros dependientes de entidades locales, de las entidades privadas sin ánimo de lucro, de los centros ordinarios públicos y privados, así como a los servicios e instalaciones en los que se desarrollen las actividades autorizadas por la Administración educativa.

4.– Esta Formación en Centro de trabajo deberá adecuarse al principio de igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

***Artículo 4.***– Calendario y horario de la Fase de Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres.

1.– Las entidades locales, las entidades sin ánimo de lucro, y los centros ordinarios públicos y privados organizarán y planificarán, en el ejercicio de su autonomía, el desarrollo del módulo de Formación en Centro de Trabajo para cada Programa de Cualificación Profesional Inicial.

2.– Calendario y horario:

– La Fase de Formación en Centro de Trabajo, como parte integrante del programa de Cualificación Profesional Inicial, deberá ser impartida en su totalidad entre las fechas de inicio y fin establecidas en el calendario escolar de cada curso académico. Por tanto su impartición, evaluación y calificación deberá realizarse antes de la fecha prevista para la finalización del segundo curso del Programa de Cualificación Profesional Inicial.

– Se realizará de lunes a viernes, no festivos laborales en la localidad en que radique la empresa, con horario semanal máximo de 35 horas.

– El horario diario estará comprendido entre 3 y 8 horas, en turnos de mañana y/o tarde. En ningún caso se realizará en horario nocturno.

3.– Igualmente, queda excluida la posibilidad de realizar la Fase de Formación en Centro de Trabajo en puestos de trabajo que tengan la consideración de especialmente penosos y/o peligrosos.

4.– Un máximo del 10% de las horas del módulo de Formación en Centro de Trabajo podrán emplearse en reuniones con el tutor o tutora y/o el instructor o instructora del centro de trabajo y de otro tipo de actividades preparatorias realizadas en el centro educativo.

***5. artikulua.***– Salbuespenak bideratzea.

1.– Enpresa- edo industria-sektorearen ezaugarriak direla eta, Agindu honetan ezarritako denbora eta ordutegiaren arloko baldintzez bestelako baldintza batzuk bete behar dituzten Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programek Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzaren berariazko baimena beharko dute, eta ikastetxearen curriculum-proiektuan zehaztu beharko dira berezitasun horiek. Salbuespen hori indarrean egongo da, beste aldaketarik ez badago.

2.– Ikasle batentzako salbuespen-baimenak ikasleak berak eskatu beharko ditu, banaka eta behar bezala arrazoituta. Toki-entitatearen edo irabazteko asmorik gabeko entitatearen legezko ordezkariak edo ikastetxe arruntaren zuzendariak egin beharko ditu, eta Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkio.

3.– Honako gutxieneko baldintza hauek errespetatu beharko dira baimenak ematean:

– Lantokiko Prestakuntza modulua eskola-egutegian finkatutako datez kanpoko datetan egitea baimentzen denean, gutxienez 30 egun jarraituko oporraldia ezarri beharko da ekainean, uztailean eta abuztuan.

– Jardunaldiak ezin izango du, inola ere, gainditu 4. artikuluan ezartzen den eguneko eta asteko jardunaldirako ezarritako gehienekoak.

***6. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntza modulua Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko enpresetan edo lantegietan egitea.

Salbuespen gisa, ikasleek Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan egin ahal izango dute prestakuntza fase hori. Toki-entitatearen edo irabazteko asmorik gabeko entitatearen ordezkariak edo ikastetxe arruntaren zuzendariak baimen arrazoitua eskatu beharko dio Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari. Edonola ere, baimen horiek eman arren, Agindu honen beste artikulu guztiak ere bete beharko dira.

***7. artikulua.***– Toki-entitate, irabazteko asmorik gabeko entitate eta ikastetxe eta lantokien arteko harremanak.

1.– Toki-entitateek, irabazteko asmorik gabeko entitateek, ikastetxe publikoek edo pribatuek, batetik, eta lantokiek (enpresek edo lantegiek), bestetik, Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko baldintzak bilduko dituen lankidetza-hitzarmena sinatuko dute. Edonola ere, Lantokiko Prestakuntza modulu horretarako ezarritako arauak eta Agindu honetan ezartzen diren arauak izan beharko dira aintzat. Agindu honen I. eranskinean jasotzen diren klausulak, gutxienez, bilduko ditu lankidetza-hitzarmenak.

***Artículo 5.***– Tramitación de excepciones.

1.– Los programas de Cualificación Profesional Inicial que por las características del sector empresarial o industrial en que se enmarquen precisen de condiciones de temporalización y horario diferentes de las establecidas en esta Orden deberán contar, en el proyecto curricular del centro, de la especificación correspondiente y de autorización expresa de la Dirección de Aprendizaje Permanente. Esta excepcionalidad se mantendrá en vigor en tanto en cuanto no se produzcan nuevas modificaciones.

2.– Las autorizaciones de excepción para un alumno o alumna, a petición del mismo, y siempre de forma individual y debidamente fundamentadas, deberá realizarlas el representante o la representante legal de la entidad local o privada sin ánimo de lucro, o el Director o Directora del centro educativo ordinario, comunicando tal circunstancia a la Dirección de Aprendizaje Permanente.

3.– Las condiciones mínimas que deberán respetarse al conceder las autorizaciones son:

– En los casos en que se autorice la realización de la Formación en Centro de Trabajo fuera de las fechas determinadas en el calendario escolar, deberá establecerse un período vacacional de al menos 30 días naturales consecutivos durante los meses de junio, julio y agosto.

– La jornada nunca podrá superar los máximos establecidos para la jornada diaria y semanal en el artículo 4.

***Artículo 6.***– Realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres fuera del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

El alumnado podrá realizar esta Fase de Formación en otras Comunidades Autónomas del Estado con carácter excepcional. El representante o la representante de la entidad local o entidad sin ánimo de lucro, o el Director o Directora del centro educativo ordinario deberá solicitar autorización motivada a la Dirección de Aprendizaje Permanente. En cualquiera de los casos, estas autorizaciones no eximirán del cumplimiento del resto de los artículos contenidos en esta Orden.

***Artículo 7.***– Relaciones entre las entidades locales, entidades privadas sin ánimo de lucro y los centros educativos, y el centro de trabajo.

1.– Las entidades locales, las entidades privadas sin ánimo de lucro, los centros públicos o privados por un lado y el centro de trabajo (empresas o talleres) por el otro, suscribirán un acuerdo de colaboración que recoja las condiciones de realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo, ajustándose en todo caso a la normativa establecida para este Módulo de Formación en Centro de Trabajo y las que establece esta Orden. Este acuerdo de colaboración contendrá al menos las cláusulas que se recogen en el anexo I de la presente Orden.

2.– Toki-entitateak, irabazteko asmorik gabeko entitateak edo ikastetxe arruntak prestakuntza hori jasoko duten ikasleen zerrenda bidaliko dio lantokiari, jakitun egon dadin. Zerrenda horretan, honako datu hauek jasoko dira: NAN zenbakia, egiten den heziketa-zikloa, denbora-baldintzak (hasierako eta amaierako datak, asteko lanegunak, egunen kopuru osoa, eguneko ordu kopurua eta guztizko kopurua), prestakuntza-jardueren dokumentazioa eta Agindu honetan adierazten diren txostenak.

3.– Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko aldia bukatzean amaituko dira toki-entitatearen, irabazteko asmorik gabeko entitatearen edo ikastetxe arruntaren eta lantokiaren arteko harremanak.

4.– Era berean, alderdietako batek hala adierazita ere bukatutzat eman ahal izango dira harremanak. Horretarako, alde horrek hamabost egun lehenago idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, baldintza hauetakoren bat gertatzen denean:

– Ezinbesteko kasuetan, programatutako jarduerak garatu ezin badira.

– Aldeetako batek betetzen ez baditu onartutako konpromisoak, praktikak pedagogikoki desegokiak badira edo kasuan kasu indarrean dauden arauak, programatutako jarduerak egiteari buruzkoak, hausten badira.

– Alde biak ados jarrita.

5.– Halaber, ikasle batentzat edo ikasle-talde batentzat baliogabetu ahal izango ditu aldeetako edozeinek, eta ikasle edo ikasle/talde hori praktika-programatik kanpo geratuko da honako kasu hauetan:

– Praktiketara behin eta berriz huts egiteagatik edo justifikatu gabe berandu heltzeagatik.

– Jarrera desegokiagatik edo aprobetxamendu-faltagatik, interesdunari aurretik entzunda.

***8. artikulua.***– Toki-entitateen, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta ikastetxe pribatu edo publiko arruntaren jarduerak.

1.– Ikasturteko lehen seihilekoan eta, beti, praktikak hasi baino bi aste lehenago prestakuntza jasoko duten ikasleen zerrenda bidaliko diote toki-entitateek, irabazteko asmorik gabeko entitateek eta ikastetxe arruntek Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari, jakitun egon dadin. Zerrenda horretan, honako datu hauek jasoko dira: NAN zenbakia, egiten den lanbide-kualifikazioko profila eta denbora-baldintzak: hasiera- eta amaiera-datak; asteko lanegunak; egunen kopuru osoa; eguneko ordu kopurua eta guztizko kopurua.

2.– Halaber, lehen seihilekoan eta praktikak hasi baino bi aste lehenago, Lantokiko Prestakuntza

2.– La entidad local, entidad sin ánimo de lucro, o el centro educativo ordinario remitirá al centro de trabajo, para su conocimiento, la relación nominal del alumnado que va a realizar esta Formación con indicación expresa de número de DNI, perfil profesional que realiza, condiciones de temporalización (fecha de inicio y finalización, días laborables de la semana, número total de días, número de horas por día y totales) y la documentación de las actividades de formación e informes que se indican en la presente Orden.

3.– La relación establecida entre la entidad local, entidad sin ánimo de lucro, o centro educativo ordinario por un lado, y el centro de trabajo por el otro, finalizará al cumplirse el período para la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

4.– Asimismo, la relación podrá darse por finalizada mediante manifestación expresa de cualquiera de las partes, debiendo ser comunicada por escrito a la otra parte con quince días de antelación, siempre que concurra alguno de los siguientes supuestos:

– Fuerza mayor que imposibilite el desarrollo de las actividades programadas.

– Incumplimiento, por alguna de las partes, de los compromisos adquiridos, inadecuación pedagógica de las prácticas o vulneración de las normas que, en relación con la realización de las actividades programadas, estén en cada caso vigentes.

– Mutuo acuerdo entre las partes.

5.– Igualmente se podrán rescindir para un alumno o alumna o grupo de alumnos, por cualquiera de las partes, y ser excluido de su participación en el programa de prácticas en los siguientes casos:

– Faltas repetidas de asistencia y/o puntualidad no justificadas.

– Actitud incorrecta o falta de aprovechamiento, previa audiencia del interesado o de la interesada.

***Artículo 8.***– Actuaciones de las entidades locales, entidades sin ánimo de lucro, y del centro educativo ordinario público o privado.

1.– Durante el primer semestre del curso escolar y siempre dos semanas antes de empezar las prácticas, las entidades locales, las entidades privadas sin ánimo de lucro, y los centros educativos ordinarios remitirán a la Dirección de Aprendizaje Permanente para su conocimiento la relación nominal del alumnado que va a realizar esta Formación con indicación expresa de número de DNI, perfil de iniciación profesional que realiza, y condiciones de temporalización: fecha de inicio y finalización, días laborales de la semana, número total de días, número de horas por día y totales.

2.– Asimismo elaborarán y enviarán durante el primer semestre y dos semanas antes de empezar las

moduluaren proiektua landu eta igorriko dute, eta bertan jasoko dira ikasleek produkzio-ingurunean egin beharko dituzten prestakuntza-jarduera guztiak. Enpresa-antolakuntza ezagutzera eta lan-baldintzak garatzera bideratutako jarduerak izango dira. Programazio hori lantzeko, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetako bakoitzaren curriculum-diseinuak erabiliko dira, horietan ezarrita baitaude finkatutako helburuak, edukiak eta ebaluazio-, denbora- eta sekuentziazio-irizpideak, erreferentzia-ordutegia eta Agindu honetan ezarritako jarraibideak.

Programazio hori lantzean, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (martxoaren 2ko EHAA) 29. artikuluaren edukia izango da kontuan, eta baterako hezkuntzako helburuak proposatuko dira.

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak baimenduko du proiektu hori.

3.– 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, seihilekoa amaitu aurretik eta praktikak hasi baino bi aste lehenago, entitateak berak eta ikastetxeak berak, batetik, eta lantokiak, bestetik, sinaturiko hitzarmenaren kopia bidaliko dute.

4.– Behar izanez gero, prestakuntza praktikoaren fasea egiteko ikasleek eskatutako salbuespen-eskabideak izapidetuko dituzte, Agindu honen 5. artikuluan ezarritako baldintzetan.

5.– Lantokiko Prestakuntza modulua Agindu honetan ezartzen den moduan egiteko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen laguntzak eta diru-laguntzak bideratu eta kudeatuko dituzte.

***9. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntza moduluaren koordinazioa.

1.– Ikastetxe publikoetan koordinatzaile bat izenda daiteke. Lantokiko Prestakuntza moduluaren koordinatzaileak honako funtzio nagusi hauek izango ditu:

– Ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak ezarri eta garatzea.

– Lantokiko Prestakuntza modulua haien kargura duten tutoreen ekintzak koordinatzea, eta pertsona horien profilean baterako hezkuntzako prestakuntza txertatzen saiatzea.

– Administrazio-kudeaketa egitea, ikastetxearen zuzendariaren oniritziarekin, eta laguntzen eskabidea egiteko eta laguntzak eurak kudeatzeko behar diren agiriak eta abar betetzea.

2.– Lagun bakarreko gobernu-organotzat joko da koordinatzailea, baldin eta ikastetxearen Antolamendu eta Funtzionamendurako Arautegian hala jasota badago.

prácticas, un proyecto del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en la que se incluirá el conjunto de actividades formativas que debe realizar el alumnado en el entorno productivo, tendentes al conocimiento de la organización empresarial y al desarrollo de las condiciones de trabajo. Para la elaboración de esta programación se utilizarán los diseños curriculares de cada uno de los Programas de Cualificación Profesional Inicial, en los que están establecidos los objetivos, contenidos y criterios de evaluación, la temporalización y secuenciación, el horario de referencia y las directrices establecidas en la presente Orden.

Para la elaboración de la programación citada se tendrá en cuenta el contenido del artículo 29 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, BOPV de 2 de marzo, proponiendo objetivos coeducativos.

La Dirección de Aprendizaje Permanente autorizará este proyecto.

3.– Antes del fin del primer semestre y dos semanas antes de empezar las prácticas, enviarán también una copia del acuerdo firmado entre la propia entidad y el propio centro por un lado, y el centro de trabajo por el otro, según lo establecido en el artículo 7.1.

4.– Tramitarán, si es caso, las solicitudes de excepciones de realización de la fase de Formación Práctica efectuadas por el alumnado, en los términos establecidos en el artículo 5 de la presente Orden.

5.– Tramitarán y gestionarán las ayudas y subvenciones que establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para la realización de este Módulo de Formación en Centro de Trabajo en la forma que establece la presente Orden.

***Artículo 9.***– Coordinación del Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

1.– En los centros públicos podrá nombrarse un coordinador o coordinadora. Este coordinador o coordinadora del Módulo de Formación en Centro de Trabajo tendrá como funciones principales:

– El establecimiento y desarrollo de las relaciones entre el centro educativo y el centro de trabajo.

– La coordinación de las acciones de los diferentes tutores o tutoras que tengan a su cargo el Módulo de Formación en Centro de Trabajo, tratando de incorporar en el perfil de estas personas la formación en coeducación.

– La tramitación administrativa, con el Visto Bueno del director o directora del centro, y cumplimentación de los documentos administrativos correspondientes a la solicitud y gestión de ayudas, etc.

2.– Esta figura podrá tener la consideración de órgano unipersonal de gobierno, siempre y cuando figure en el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) del centro educativo.

***10. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan edo lantegietan tutoretzea.

Hona prestakuntza-fase horren tutoreen funtzio nagusiak:

– Ikasleen Lantokiko Prestakuntzako fasea programatzea. Sailak landutako lanbide-profil bakoitzaren programazioa da horren oinarria, eta lantokiko instruktorearekin koordinatuta egin behar du hori, produkzio-ingurunearen ezaugarri zehatzetara egokituta. Programazio hori ikaslearen «Lantokiko Prestakuntzako moduluaren koadernoaren» barruan jasoko da.

– Lantokiko Prestakuntza modulua behar bezala garatzen den baloratzea eta gainbegiratzea, aldian-aldian lantokira bisitak eginez eta horretarako aurreikusitako bestelako baliabideak erabiliz.

– Lantokiko instruktorearekin bilerak egitea –fase hau egin aurretik, egiten den bitartean eta egin ostean–, eta fasearen garapenari buruzko informazioa modu orokorrean jasotzea.

– Lantokiko prestakuntza horretan parte hartzen ari diren ikasleekin bilerak antolatzea –lantokiko prestakuntzaren aurretik, bitartean eta ostean–, eta prestakuntza horren garapenari buruzko informazioa jasotzea enpresa bakoitzean.

– Ikaslearen «Lantokiko Prestakuntzako moduluaren koadernoa» gainbegiratzea.

– Lantokiko Prestakuntzako moduluaren ebaluazio-prozesuari buruzko araudian ezartzen dena betetzea.

***11. artikulua.***– Enpresetako edo lantegietako jardunak.

1.– Instruktore bat edo batzuk izendatuko dituzte enpresek edo lantegiek. Instruktoreak prestakuntza egokia izan beharko du, Lantokiko Prestakuntza modulua koordinatu, garatu eta jarraitzeko, eta dedikazio nahikoa izan beharko du, ikasleen orientazioa eta kontsulta bermatzeko eta tutorearekiko harremanak bermatzeko.

2.– Instruktore bakoitzak gehienez ere hiru ikasle izango ditu bere kargura.

3.– Ikasleak hartzen dituzten enpresek edo lantegiek konpromisoa hartuko dute aurretiaz erabakitako prestakuntza-jardueren programazioa betetzeko eta, behar izanez gero, jarduera horiek berrikusteko.

4.– Ikasleei aplikatu ahal zaien laneko segurtasun eta higieneari buruzko legeria beteko dela zainduko dute enpresek edo lantegiek.

5.– Agindu honetan ezarritako jarraibideen arabera, eta euskal administrazioak ekitaldi bakoitzerako finkatutako zenbatekoan, jasoko ditu enpresak laguntza ekonomikoak.

***Artículo 10.***– Tutorización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en las empresas o talleres.

Los tutores o las tutoras de esta fase de formación tendrán como funciones principales:

– La Programación de la Fase de Formación en Centro de Trabajo del alumnado, que tiene como base la programación de cada perfil profesional, elaborada por el Departamento, en coordinación con el instructor o instructora del centro de trabajo, adecuándolo a las características concretas del entorno productivo. Esta programación se incluirá en un «Cuaderno del Módulo de Formación en Centro de Trabajo» del alumno o alumna.

– La valoración y supervisión del correcto desarrollo del Módulo de Formación en Centro de Trabajo mediante visitas periódicas al centro de trabajo y otros medios previstos al efecto.

– La realización de reuniones con el instructor o instructora del centro de trabajo antes, durante y después del período de realización de esta fase, recabando, de forma global, información sobre el desarrollo de la misma.

– Organización de reuniones con el alumnado inmerso en esta formación antes, durante y después de la realización de la misma, obteniendo información sobre su desarrollo en cada empresa.

– La supervisión del «Cuaderno del Módulo de Formación en Centro de Trabajo» del alumno o alumna.

– La cumplimentación de lo establecido en la normativa relativa al proceso de evaluación del Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

***Artículo 11.***– Actuaciones de las empresas o talleres.

1.– Las empresas o talleres nombrarán un instructor o instructora o varios, con la debida formación, para la coordinación, desarrollo y seguimiento del Módulo de Formación en Centro de Trabajo, con la dedicación necesaria para garantizar la orientación y consulta del alumnado, así como las relaciones con el tutor o tutora.

2.– Cada instructor o instructora podrá tener a su cargo, como máximo a tres alumnos o alumnas.

3.– Las empresas o talleres que acojan alumnado quedan comprometidas al cumplimiento de la programación de actividades formativas previamente acordadas y, si fuese necesario, a la revisión de las mismas.

4.– La empresa o taller velará por el cumplimiento de la legislación aplicable al alumno o alumna en materia de seguridad e higiene en el trabajo.

5.– La empresa recibirá las ayudas económicas de acuerdo a las directrices establecidas en esta Orden y en la cuantía fijada por la Administración Vasca para cada ejercicio.

6.– Enpresek edo lantegiak praktikak egingo dituzten ikasleen berri emango diete langileen ordezkariei. Praktikak egingo dituzten ikasleen zerrendak, ikasturtean zehar gertatzen diren altak eta bajak eta ikasleak praktikak egiteko baldintzak eta modua jakinaraziko diete.

7.– Enpresak edo lantegiak ezin izango du lantaldeko lanposturik bete prestakuntza hori egiten ari diren ikasleekin. Era berean, ezin izango du haiekin inongo lan- edo zerbitzu-harremanik ezarri enpresetan edo lantegietan Lantokiko Prestakuntza modulua egiten duten aldian.

8.– Lantokiko Prestakuntza modulua amaitzean, enpresako edo lantegiko legezko ordezkariak 10 eguneko epean aurkeztuko du instruktoreak egindako amaierako txostena.

***12. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntza moduluaren instruktorea enpresetan edo lantegietan.

1.– Lantokiko prestakuntzako moduluaren instruktoreek honako funtzio nagusi hauek izango dituzte:

– Ikastetxeko tutorearekin adostuta prestakuntza-plana ezartzea eta aldian-aldian elkartzea, lantokian sartzea erraztuz.

– Ikasleak hartzea, enpresaren berri ematea, jarduerak nola egin erakustea eta ikaslearen jarduera eta jarreren jarraipena egitea.

– Ikaslearen «Lantokiko Prestakuntzako moduluaren koadernoa» gainbegiratzea eta bideratzea.

– Ikaslearen ahalmen, gaitasun eta jarrerei buruzko azken txostena igortzea, Lantokiko Prestakuntza moduluaren ebaluazioan laguntzeko.

2.– Funtzio horiek garatzeak ez du ekarriko instruktorearen eta hezkuntza-administrazioaren artean inongo lan-harremanik hastea.

***13. artikulua***.– Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Ikasleak ez du inoiz lan-harreman edo -loturarik izango enpresarekin. Beraz, ezin izango da lan-kontraturik egin ikaslearen eta enpresaren artean prestakuntza-fase honetan, eta ikasleak ezin izango du enpresako lanposturik ordezkatu, ezta eskaintza osoko egunez egon beharreko zerbitzu-harremanik finkatu edo salbuespenik egin eskolatzeko beste erregimen batzuetan.

2.– Ikasleak ezin izango du inolako zenbateko ekonomikorik jaso enpresatik edo lantegitik, Lan-

6.– Las empresas o talleres se encargarán de informar a los o las representantes de los trabajadores o trabajadoras de la relación del alumnado que va a realizar prácticas, así como de las altas y bajas a lo largo del curso y de la forma y condiciones en que el alumnado vaya desarrollando su actividad práctica.

7.– La empresa o taller no podrá cubrir, ni siquiera de forma interina, ningún puesto de trabajo de plantilla con alumnos o alumnas que estén realizando esta formación, ni establecer con ellos o ellas relación laboral ni de servicios, durante el período de realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo a en empresas o talleres.

8.– El o la representante legal de la empresa o taller, a la finalización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo, presentará el informe final elaborado por el instructor o instructora en un plazo de 10 días.

***Artículo 12.***– El instructor o instructora del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en las empresas o talleres.

1.– Los instructores o instructoras del Módulo de Formación en Centro de Trabajo tendrán como funciones principales:

– Establecer el plan formativo de común acuerdo con el tutor o tutora del centro educativo y realizar encuentros periódicos, facilitando su acceso al centro de trabajo.

– Acoger al alumnado, informar sobre la empresa, enseñar cómo realizar las actividades y realizar un seguimiento de las actividades y actitudes del alumno o alumna.

– Supervisar y diligenciar el «Cuaderno del Módulo de Formación en Centro de Trabajo» del alumno o alumna.

– Emitir un informe final, acerca de las capacidades, habilidades y actitudes del alumno o alumna, para contribuir a la evaluación del Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

2.– El desarrollo de las funciones citadas no supondrá el inicio de ningún tipo de relación laboral entre el instructor o instructora y la Administración Educativa.

***Artículo 13.***– Derechos y obligaciones del alumnado.

1.– El alumnado no tendrá, en ningún caso, vinculación o relación laboral con la empresa, por lo que no podrá formalizarse contrato de trabajo entre el alumno o alumna y la empresa durante esta fase de formación, ni suplir ningún puesto de trabajo en la misma, ni establecer una relación de servicios en régimen presencial diurno de oferta total.

2.– El alumno o alumna no tendrá derecho a percibir cantidad económica alguna de la empresa o ta-

tokiko Prestakuntza modulua egitearen ondoriozko ordainsari gisa.

3.– Ikasleak praktika-koadernoa beteko du, eta bertan, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko ditu: egindako jarduerak, zein egunetan eta sail edo ataletan egin dituen, jarduerak egin direnean aurrean izan den instruktorearen izena, eta zein zailtasun izan dituen jarduerok garatzeko. Horiek denak «Lantokiko Prestakuntzako moduluaren koadernoari» erantsiko zaizkio.

4.– Adostutako praktiketara joan beharko du ikasleak, eta finkatutako ordutegia bete.

5.– Programatutako prestakuntza-jarduerak enpresaren lokaletan garatuko ditu ikasleak edo, behar izanez gero, bere jarduera garatzen den tokietan.

6.– Enpresak informazioa eman beharko dio ikasleari, hain zuzen ere lan-arriskuei eta prestakuntza-jarduera garatzeko tokian lanpostuak hartu beharreko prebentziozko neurriei buruzkoa. Era berean, enpresaren larrialdi- eta ebakuazio-plana ezagutuko du ikasleak, eta lantokian istripurik ez izateko informazioa jaso beharko du.

7.– Laneko segurtasunari eta higieneari buruz indarrean den legeria bete beharko du ikasleak.

8.– Lantokian edo lantokirako joan-etorrietan istripuren bat izanez gero, gertakizun hori eskola-aseguruaren arabera –abuztuaren 13ko 2078/1971 Dekretuan ezarritakoa (irailaren 18ko BOE)– eta euskal administrazio ondorio horretarako harpidetutako istripu eta erantzukizun zibileko beste aseguru gehigarri baten arabera hartuko da aintzat.

9.– Agindu honetan ezarritako jarraibideen arabera, eta euskal administrazioak ekitaldi bakoitzerako finkatutako zenbatekoan, jasoko dituzte ikasleek laguntza ekonomikoak.

II. KAPITULUA
LAGUNTZEN PROGRAMA

***14. artikulua.***– Laguntzak.

1.– Agindu honetan aipatutako laguntzak, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzatzat hartuko dira juridikoki, eta Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetako Lantokiko Prestakuntza modulua finantzatzeko erabiliko dira. Diru-laguntza horiek Lantokiko Prestakuntza moduluan parte hartzen duten enpresei eta ikasleei eman ahal izango zaizkie.

2.– Laguntzaren helburua izango da eskabidea egiten den urtearen aurreko irailaren 1etik eskabide-urteko ekainaren 30era bitartean ikasleek egiten duten Lantokiko Prestakuntza modulua.

ller en concepto de retribución por la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

3.– El alumno o alumna cumplimentará un cuaderno de prácticas, en el que se reseñarán, al menos, las actividades realizadas, fecha y departamento o sección donde se realizan, nombre del instructor o instructora presente durante su ejecución y dificultades observadas en su desarrollo, que se adjuntará al «Cuaderno del Módulo de Formación en Centro de Trabajo».

4.– El alumno o alumna tiene la obligación de asistir a las prácticas acordadas y cumplir el horario establecido.

5.– El alumnado desarrollará las actividades formativas programadas en los locales de la empresa o, en su caso, en aquellos lugares en los que se desarrolle su actividad.

6.– Los alumnos o alumnas deberán ser informados por la empresa de los riesgos laborales y medidas preventivas que conlleva el puesto de trabajo donde vaya a desarrollar la acción formativa. Asimismo, conocerá el plan de emergencia y evacuación de la empresa y deberá recibir la formación necesaria para la prevención de accidentes en el centro de trabajo.

7.– El alumnado tendrá la obligación de cumplir la legislación aplicable en materia de seguridad e higiene en el trabajo.

8.– Cualquier eventualidad de accidente que pudiera producirse en el centro de trabajo o desplazamiento al mismo, será contemplada a tenor del seguro escolar, establecido en el Decreto 2078/1971, de 13 de agosto (BOE de 18 de septiembre), y de otro seguro adicional de accidentes y de responsabilidad civil, suscrito al efecto por la Administración Vasca.

9.– Los/as alumnos/as recibirán las ayudas económicas de acuerdo a las directrices establecidas en esta Orden en la cuantía fijada por la Administración Vasca en cada ejercicio.

CAPÍTULO II
PROGRAMA DE AYUDAS

***Artículo 14.***– Ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden tendrán la naturaleza jurídica de subvenciones a fondo perdido destinadas a financiar el Módulo de Formación en Centro de Trabajo de los Programas de Cualificación Profesional Inicial. Estas subvenciones podrán otorgarse a las empresas y alumnado que participen en el Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

2.– Será objeto de ayuda el módulo de Formación en Centro de Trabajo realizada por el alumnado desde el 1 de septiembre precedente hasta el 30 de junio del año en que se presente la solicitud.

3.– Eskatzaileek baldintzak bete dituztela egiaztatu eta gero emango dira laguntza horiek.

4.– Agindu honetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. titulua aplikatuko da.

***15. artikulua.***– Enpresentzako edo lantegientzako laguntzak.

1.– Ikasleak praktiketan hartu eta lankidetzan ari diren enpresentzako eta lantegientzako diru-laguntzak instruktoreek ikasleak prestatzen hartzen duten arduragatik eta ikasketen jarraipena egiteagatik emango dira.

2.– Enpresentzako edo lantegientzako diru-laguntzen zenbatekoa Lantokiko Prestakuntza moduluaren iraupen finkoaren arabera eta Lantokiko Prestakuntza enpresan egiten duten ikasle kopuruaren arabera kalkulatuko da. Ikasleak enpresan ematen duen prestakuntza-ordu bakoitzeko 0,50 euroko zenbatekoa finkatu da, eta ez dira diruz lagunduko 50 ordutik beherako egonaldiak, ezta Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza moduluetarako ezarritako gehieneko iraupena gainditzen duten orduak ere (280 ordu gutxienez eta 350 ordu gehienez).

3.– Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko laguntzen deialdiaren urteko Aginduak, ordea, kontsumoko prezioen indizearen bilakaeraren arabera aldatu ahal izango du zenbateko hori.

4.– Gutxienez % 33ko ezintasun fisiko edo psikiko aitortua duten ikasleak praktiketan hartzen dituzten enpresei edo lantegiei ematen zaizkien diru-laguntzak % 25 gehituko dira, ikasle horiei dagokienez.

5.– Laguntzaren helburua izango da eskabidea egiten den urtearen aurreko irailaren 1etik eskabide-urteko ekainaren 30 bitartean ikasleek egiten duten Lantokiko Prestakuntza modulua.

6.– Administrazio publikoek, instituzio eta entitate publikoek zein ofizialek, eta kapitalaren % 50 edo gehiago publikoa duten enpresek ez dute aztergai dugun laguntzarik jasoko.

***16. artikulua.***– Ikasleentzako laguntzak.

1.– Lantokiko Prestakuntza modulua egiteak ikasleei sorrarazten dizkien gastu erantsiak konpentsatzeko, ikasleek Lantokiko Prestakuntza egiteko enpresatara joan behar izan duten egun kopuruaren araberako laguntzak ezarri dira, betiere gehienez 60 egun.

2.– Ikaslea enpresara joandako egun bakoitzeko 1,75 euroko diru-laguntza emango da.

3.– Las citadas ayudas se concederán una vez comprobado el cumplimiento, por parte de los solicitantes, de los requisitos exigidos.

4.– En todos aquellos aspectos no previstos en la presente Orden será de aplicación el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

***Artículo 15.***– Ayudas a las empresas o talleres.

1.– Las ayudas a las empresas o talleres que colaboren acogiendo alumnos o alumnas en prácticas, se concederán en concepto de dedicación en la formación de los alumnos o alumnas del instructor o instructora, y del seguimiento del aprendizaje.

2.– La cuantía de las ayudas a las empresas o talleres se calculará en función de la duración fija del módulo de Formación en Centros de Trabajo y del número de alumnos/as que realicen la Formación en Centro de Trabajo en la empresa. La cuantía se establecerá en 0,50 euros por cada hora de formación del/la alumno/a en la empresa, no subvencionándose estancias inferiores a 50 horas, ni las horas que excedan de las establecidas como duración máxima de las FCTs en los PCPIs (280 horas mínimo hasta 350 horas máximo).

3.– La Orden anual de convocatoria de ayudas por la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en los Programas de Cualificación Profesional Inicial podrá modificar esta cuantía en consonancia con la evolución del IPC.

4.– Las ayudas que se concedan a empresas o talleres que acojan en prácticas a alumnado con discapacidades físicas o síquicas reconocidas de al menos un 33%, se incrementarán, en lo correspondiente a este alumnado en un 25%.

5.– Será objeto de ayuda la Formación en Centro de Trabajo realizada por los/as alumnos/as desde el 1 de septiembre hasta el 30 de junio del año en que se presente la solicitud.

6.– Las Administraciones Públicas, así como las Instituciones y Organismos Públicos u Oficiales y las empresas participadas por capital público en un 50% o superior, están excluidas de este tipo de ayuda.

***Artículo 16.***– Ayudas al alumnado.

1.– Para compensar los gastos añadidos que la realización de la Formación en Centro de Trabajo genera al/la alumno/a, se establecen ayudas en función del número de días en que los/as alumnos/as se hayan desplazado a las empresas, con un máximo de 60 días para la realización del módulo de las FCTs.

2.– La cuantía de la ayuda por cada día de desplazamiento se establece en 1,75 euros.

3.– Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko laguntzen deialdiaren urteko Aginduak, ordea, kontsumoko prezioen indizearen bilakaeraren arabera aldatu ahal izango ditu zenbateko horiek.

4.– Ezintasun fisiko edo psikikoak izateagatik enpresara joan eta etortzeko baldintza bereziak behar dituzten ikasleek laguntza finkoa izango dute. Laguntza horren zenbatekoa izango da lehen atalean adierazitakoa halako 2,5. Halakoetan, derrigorrezkoa izango da aitortutako ezintasunaren egiaztagiria aurkeztea, eta ezintasun horrek % 33koa izan beharko du, gutxienez.

***17. artikulua.***– Entitate laguntzaileak.

1.– Agindu honetan arautako laguntzen programa kudeatze aldera, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak ematen dituzten eta ikasleek Lantokiko Prestakuntza modulua egiten duten ikastetxe publiko nahiz pribatuak, toki-entitateak, eta irabazteko asmorik gabekoak entitate laguntzailetzat hartuko dira.

2.– Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak ematen dituzten eta ikasleek Lantokiko Prestakuntza modulua egiten duten ikastetxe publiko nahiz pribatuek, toki-entitateek, eta irabazteko asmorik gabeko entitateek II. eranskin moduan gehitu den hitzarmena sinatzeko konpromisoa hartuko dute. Hura sinatuta, entitate laguntzaile bihurtuko dira horiek guztiak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak hitzarmena sinatu eta gero, dagokien kopia bidaliko zaie entitate eta ikastetxe pribatu guztiei. Agindu honetan arautako laguntzak kudeatzeko, bidenabar, hitzarmen hori sinatzea nahitaezko baldintza izango da.

3.– Arau honek entitate laguntzaileei ezartzen dizkien betebeharrak gorabehera, horiek oinarrizko betekizun hauek izango dituzte:

– Laguntzen eskabideak jasoko dituzte, jaso diren eguna adierazita beti, eta jaso ahalako hurrenkera errespetatuz.

– Dokumentazioa gainbegiratuko dute eta, hala badagokio, hutsegiteak zuzentzeko eskatuko dute.

– Eskaera egin dutenek eta laguntzen onuradunek emandako datuen konfidentzialtasuna bermatuko dute, eta diru-laguntzaren helburuetarako baino ez dituzte erabiliko, betiere datu pertsonalak babesteko araubidean xedatutakoaren arabera.

– Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari igorriko dizkiote deialdian ezarritako moduan eta epeetan ikasleek eta enpresek aurkeztutako laguntza-eskabideak (III. eta IV. eranskinak). Eskabide horiek

3.– La Orden anual de convocatoria de ayudas por la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en los Programas de Cualificación Profesional Inicial podrá modificar estas cuantías en consonancia con la evolución del IPC.

4.– Los alumnos o alumnas con discapacidades físicas o psíquicas que requieran de especiales condiciones para su traslado a la empresa contarán con una ayuda fija equivalente a 2,5 veces lo señalado en el apartado uno, siendo en tal caso preceptiva la presentación del certificado de minusvalía reconocida que no podrá ser inferior a un porcentaje del 33%.

***Artículo 17.***– Entidades colaboradoras.

1.– A los efectos de gestionar el programa de las ayudas reguladas en la presente Orden, podrán tener la consideración de entidades colaboradoras aquellas entidades locales, entidades sin ánimo de lucro, centros públicos o privados que impartan programas de Cualificación Profesional Inicial y cuyos alumnos o alumnas realicen el Módulo de Formación en Centro de Trabajo.

2.– Las entidades locales, entidades sin ánimo de lucro y los centros privados que impartan Programas de Iniciación Profesional y cuyo alumnado realice el Módulo de Formación en Centro de Trabajo se comprometerán a firmar el convenio que se adjunta como anexo II por el que se otorgará la condición de entidad colaboradora. Una vez que el convenio se haya firmado por el/la Viceconsejero/a de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se remitirá la copia correspondiente a cada entidad y centro privado. La firma del mencionado convenio constituye un requisito obligatorio para la gestión de las ayudas reguladas en la presente Orden.

3.– Sin perjuicio de las obligaciones que la presente norma imponga a las entidades colaboradoras, el régimen básico de obligaciones para las mismas será el siguiente:

– Recibir las solicitudes de las ayudas, dejando constancia, en todo caso, de la fecha de entrada de las solicitudes y respetando el orden temporal de recepción.

– Supervisar la documentación y, en su caso, requerir su subsanación.

– Garantizar la confidencialidad de los datos suministrados por las personas solicitantes y beneficiarios o beneficiarias de las ayudas y su uso exclusivo para los fines de la subvención, conforme a lo dispuesto en la normativa reguladora de la protección de datos de carácter personal.

– Remitir a la Dirección de Aprendizaje Permanente las solicitudes de ayudas presentadas por las alumnos/as y empresas (anexos III y IV), en la forma y plazo que establezca la correspondiente convocato-

baliagarriak izan daitezke, laguntzen Agindua argitaratu aurretik aurkeztu badira ere.

– Izapidetutako eskabideen ebazpena jakinaraziko dute, eta emandako diru-laguntzak banatuko dituzte.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari justifikatu beharko diote onuradunei diru-laguntza ordaindu izana, diru-laguntza emateko Ebazpenean ezarri bezala.

– Kitapena egitea kasuren batean posible ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko diote Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

– Diru-laguntza jaso eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, idazkariak, administratzaileak edo horretarako izendatzen den pertsonak txosten ekonomikoa aurkeztu beharko dio Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari. Bertan adieraziko da banaketa ebazpenaren edukiaren arabera egin den edo, hala egin ezean, zergatik ez den egin. Bestalde, ikasleek eta enpresek itzulitako diru kopuruak banakatuta azalduko dira –bi kasu horietan adierazi beharko da zein Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa den–, baita tutoreek itzulitako diru kopuruak ere. Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari egindako itzulitakoaren guztizko zenbatekoko transferentziaren kopia erantsiko zaio.

– Administrazioak ezartzen dituen jarraibideak eta arauak beteko dituzte laguntzen kudeaketa egokia eta erabilera onak bermatzeko.

– Laguntza eman duen organoak laguntzen kudeaketari buruz egiten dituen egiaztapenak onartuko dituzte, baita Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituztenak ere.

– Agindu honen ondorioz, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekiko ahozko zein idatzizko harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea bermatuko da.

***18. artikulua.***– Deialdia.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Agindu honetan aurreikusten diren laguntzen deialdia egingo du urtero. Deialdiaren helburua betetzeko urtero emango den gehieneko diru kopurua zehaztuko da deialdian bertan.

2.– Ikasleak matrikulatu diren ikastetxeen zuzendaritzetara bideratuko dituzte eskabideak ikasleek –edo horien gurasoek edo legezko tutoreek–, enpresek edo lantegiek, eta beti azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak aurreikusitakoa aplikatuko

ria. Estas solicitudes podrán ser válidas aunque se hayan presentado con anterioridad a la publicación de la Orden de ayudas.

– Notificar la resolución de las solicitudes tramitadas, así como realizar la distribución de las subvenciones concedidas.

– Justificar ante el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, el pago de la subvención a los beneficiarios o beneficiarias de la misma en los términos establecidos en la Resolución de concesión.

– Proceder a la devolución de la cantidad correspondiente a la Tesorería General del País Vasco en el caso de que alguna liquidación no sea posible.

– En plazo máximo de tres meses, contado a partir de la recepción de la subvención, el secretario o secretaria, administrador o administradora o persona designada al efecto deberá presentar en la Dirección de Aprendizaje Permanente una memoria económica indicando si la distribución ha sido realizada de acuerdo al contenido de la resolución o, en caso de no serlo, indicar los motivos, realizando el desglose de las cantidades devueltas por los alumnos y alumnas, empresas, en ambos con indicación del programa de Iniciación profesional, y/o por los tutores y tutoras, adjuntando copia de la transferencia realizada a la Tesorería General del País Vasco por el importe total devuelto.

– Cumplir con las instrucciones y directrices que se establezcan por la Administración, a fin de garantizar la correcta gestión y el buen fin de las ayudas.

– Someterse a cuantas actuaciones de comprobación que, respecto a la gestión de la Convocatoria de ayudas, pueda efectuar la entidad concedente y a las que corresponden a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

– Como consecuencia de esta Orden, se garantizará el derecho que tienen las personas físicas y los representantes y las representantes de las personas jurídicas para utilizar el euskera y el castellano y recibir atención en el mismo idioma, tanto a nivel oral como escrito, en sus relaciones con el departamento de Educación, Universidades e Investigación.

***Artículo 18.***– Convocatoria.

1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación realizará anualmente la respectiva convocatoria de las ayudas previstas en esta Orden. En la misma se determinará la cuantía global máxima que anualmente vaya a destinarse al cumplimiento del objeto de la misma.

2.– El alumnado –o en su defecto sus padres, madres o tutores legales– y las empresas o talleres, dirigirán las solicitudes de ayudas a las Secretarías de los centros educativos o entidades en los que los alumnos o alumnas estuvieren matriculados, siendo en to-

da (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea).

3.– Enpresek edo lantegiek ikastetxean egingo dute eskabidea –III. eranskinaren eredua– Agindu honen 12. artikuluan azaltzen den instruktoreak txostena ikastetxean aurkeztu eta gero.

4.– Ikasleek ikastetxean bertan formalizatuko dute eskabidea, Lantokiko Prestakuntza modulua amaitzean, Agindu honen IV. eranskinaren ereduaren arabera.

***19. artikulua.***– Onuradunen betebeharrak.

Emandako laguntzak onartu beharko dituzte onuradunek, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan finkatutako betebeharrei kalterik eragin gabe. Horretarako, diru-laguntzaren esleipena jakinarazten den egunetik hamabost eguneko epean onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

***20. artikulua.***– Organo kudeatzailea, ebazpena, baliabideak eta publizitate-prozedura.

1.– Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaritzak du Agindu honetan arautako laguntzak kudeatzeko eta ebazteko eskumena.

2.– Laguntzen ebazpena deialdiaren Agindua argitaratzen den egunetik 6 hilabeteko gehieneko epean hartu eta jakinaraziko du Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak. Aipatutako epea igaro eta laguntzei buruzko ebazpenik eman ez bada, eskaria ukatu dela ulertuko da.

3.– Aipatu ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen; aitzitik, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzari gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuenaren– 107. artikuluari eta hurrengoei jarraituz.

4.– Ebazpenean emandako laguntzen zenbatekoak entitate laguntzaileen arabera banakatuta adieraziko dira. Entitate laguntzaile bakoitzak haren iragarki-oholean jakinaraziko du zerrenda hori, ikasle eta enpresa onuradunei dagozkien zenbatekoen banakapenarekin.

do caso de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Las empresas o talleres formalizarán las solicitudes de ayuda según el modelo del anexo III a la entrega del informe del instructor o instructora al que se refiere el artículo 12 de la presente Orden en el centro educativo.

4.– Los alumnos o alumnas formalizarán la solicitud en el centro educativo, al finalizar el Módulo de Formación en Centro de Trabajo, según el modelo del anexo IV de la presente Orden.

***Artículo 19.***– Obligaciones de los beneficiarios o beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones establecidas en el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, los beneficiarios y las beneficiarias deberán aceptar las subvenciones concedidas. En este sentido, si en el plazo de 15 días tras la fecha de notificación de la concesión de la subvención los beneficiarios y las beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

***Artículo 20.***– Órgano gestor, resolución, recursos, procedimiento de publicidad.

1.– El órgano competente para la gestión y resolución de las ayudas reguladas en la presente Orden será la Dirección de Aprendizaje Permanente.

2.– La Resolución de las ayudas será adoptada por la Viceconsejería de Administración y Servicios y dada a conocer en el plazo máximo de 6 meses contados a partir de la fecha de publicación de la Orden de convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin que se haya publicado la resolución de la misma, la solicitud se considerará denegada.

3.– Dicha Resolución no agota la vía administrativa y, contra la misma, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, conforme a los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

4.– En la Resolución se indicarán las cantidades de las ayudas concedidas desglosadas por entidades colaboradoras y cada entidad colaboradora dará a conocer en sus respectivos tablones de anuncios dicha relación con el desglose de las cantidades correspondientes al alumnado y a las empresas beneficiarias.

***21. artikulua.***– Ordainketa.

Ordainketa bakar batean ordainduko da laguntza osoa. Horretarako, toki-entitateak, irabazteko asmorik gabeko entitateak edo ikastetxe arruntak aldez aurretik justifikatu beharko dute onuradunek Lantokiko Prestakuntza garatu dutela.

***22. artikulua.***– Toki-entitateen, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta ikastetxe pribatu edo publiko arrunten betebeharrak.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 52. artikuluan finkatutako betebeharrez gain, toki-entitateek, irabazteko asmorik gabeko entitateek eta ikastetxe arruntek, entitate laguntzaile diren aldetik, izango dute ikasleei eta enpresei zuzendutako laguntzak kitatzeko ardura, betiere Ebazpenean banakatzen diren kontzeptuen eta zenbatekoen arabera. Bi hilabeteko gehieneko epea izango dute horiek hartzen diren egunetik hasita.

2.– Laguntzak bideratzean sortzen den dokumentazio guztia Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzaren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren balizko egiaztapenen mende geratuko da, laguntza eman eta lau urteko epearen barruan.

***23. artikulua.***– Laguntzen bateraezintasuna.

Agindu honetan ezartzen diren laguntza ekonomikoak bateraezinak dira beste edozein administrazio publikok xede horretarako ezarritako laguntzekin.

***24. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen helburua betetzeko erabilitako baliabide ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako zehaztutako aurrekontu-kredituetatik hartuko dira. Aurrekontu-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko egindako deialdiaren zenbateko globala, baldin eta indarrean dagoen legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Egoera horren berri emango da EHAAn Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez.

2.– Aurrekontu-funtsak agortzen badira, eskatzaileen artean hainbanatuko dira, esleitzen den gehieneko kantitatera egokitzeko.

***25. artikulua.***– Ikuskapena, kontrola eta bermeak.

Administrazioak, organo eskudunen bitartez, beharrezkotzat jotzen dituen ikuskapen- eta kontrol-

***Artículo 21.***– Pago.

El abono de la ayuda se realizará en un único pago, por la totalidad de la misma, y tras la justificación, por parte de la entidad local, entidad sin ánimo de lucro, o centro ordinario, de la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo de los beneficiarios o beneficiarias.

***Artículo 22.***– Obligaciones de las entidades locales, entidades sin ánimo de lucro, y centros ordinarios públicos y privados.

1.– Además de las obligaciones adquiridas en el artículo 52 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, las entidades locales, entidades sin ánimo de lucro, y centros ordinarios, como entidades colaboradoras, serán los encargados de la liquidación de las ayudas destinadas al alumnado, y empresas en función de los conceptos y cantidades que se desglosen en la correspondiente Resolución en un plazo máximo de dos meses a partir de la fecha de recepción de las mismas.

2.– Toda la documentación que genere la tramitación de estas ayudas deberá quedar a disposición de posibles actuaciones de comprobación provenientes de la Dirección de Aprendizaje Permanente, Oficina de Control Económico o del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas durante un plazo de cuatro años contados a partir de la concesión de la ayuda.

***Artículo 23.***– Incompatibilidad de las ayudas.

Las ayudas económicas establecidas en la presente Orden son incompatibles con las establecidas para el mismo fin por cualquier otra Administración Pública.

***Artículo 24.***– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la presente Orden procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la cuantía global de la convocatoria o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. De tal circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios en el BOPV.

2.– En caso de agotamiento de los fondos presupuestados, se procederá al prorrateo entre las personas solicitantes a fin de adaptarse al importe máximo destinado.

***Artículo 25.***– Inspección, control y garantías.

La Administración, a través de los órganos competentes, podrá realizar las acciones de inspección y

jarduerak egin ahal izango ditu, Dekretu honetan barne hartutako helburuak betetzen direla bermatzeko.

***26. artikulua.***– Ez-betetzeak.

Deialdiaren Aginduan, emakidaren Ebazpenean eta Agindu honetan ezarritako edozein baldintza bete ezean, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen (azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen bidez onetsi zenaren) Testu Bategineko 53. artikuluan adierazitako kasu bat gertatzen bada, diru-laguntza jasotzeko eskubidea erabat galdutzat emango da ebazpen baten bidez. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko zaizkio jasotako zenbatekoak eta horiek sortutako lege-interesak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Hori guztia kasu bakoitzean gara daitezkeen ekintzen kaltetan izan gabe egingo da.

Aipatutako zenbateko horiek sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 64. artikuluan aurreikusten den erantzukizunen araubideari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak honako Agindu hau gauzatzeko beharrezko xedapenak finkatu ahal izango ditu dagozkien deialdietarako Aginduetan.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades pretendidas en esta Orden.

***Artículo 26.***– Incumplimientos.

En el supuesto de que se incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en la Orden de convocatoria y en la Resolución de concesión, así como en la presente Orden, o se encontraran en alguno de los supuestos del artículo 53 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, mediante la correspondiente resolución se declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención, y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que hubieran percibido más los intereses legales que fueren procedentes, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La Consejera de Educación, Universidades e Investigación podrá adoptar en las Órdenes de las convocatorias correspondientes, las disposiciones necesarias para la ejecución de la presente Orden.

***Segunda.***– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2011.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

LANKIDETZA HITZARMENA, ENPRESAREN ETA TOKI ENTITATE, IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ENTITATE PRIBATU EDO IKASTETXE PUBLIKO EDO PRIBATUAREN ARTEKOA, HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMETAKO PRESTAKUNTZA PRAKTIKOAREN FASEA EGITEKO ENPRESETAN EDO LANTEGIETAN.

Batetik, ........................................................................................................................................ jn/and., ....................................................... ikastetxearen titularra/entitatearen ordezkaria, eta, bestetik, .................. ........................................................................................................................................................ jn/and., ......................................................................................................... enpresaren edo lantegiaren ordezkaria,

ADIERAZI DUTE:

– Elkarri onartzen diote hitzartzeko gaitasuna eta legitimitatea.

– Hitzarmen honen helburua da ikasleek enpresetan edo lantegietan prestakuntza praktikoko fasea egin ahal izatea, eta, horrela, prestakuntza osatu ahal izatea eta tituluan eskatzen diren gaitasunak eskuratzea.

HITZARTU DUTE:

– Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan edo lantegietan egiteko lankidetza-hitzarmen hau sinatzea, betiere Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza moduluak enpresetan edo lantegietan egitea arautzen duen ....../...... Aginduari jarraituz –bi aldeek ezagutzen eta onartzen dute Agindu hori–.

KLAUSULAK

1.– Ikasleek ez dute, inola ere, lan-loturarik edo -harremanik izango Lantokiko Prestakuntza modulua egiten duten enpresarekin.

2.– Ikasleek ez dute enpresaren inolako ordainsaririk jasoko praktiken garapenean egindako jardueren truke.

3.– Ikasleei aplikatu ahal zaien laneko osasun eta segurtasuneko legeria beteko dela zainduko dute enpresek edo lantegiek.

4.– Lantokian edo bertarako bidean istripuren bat gertatuz gero, Eskolako Aseguruaren arabera edo EAEko Administrazioak izenpeturiko beste aseguru baten arabera hartuko da aintzat.

5.– Enpresak edo lantegiak bidezko prestakuntza egokia izango duten beharrezko instruktoreak izendatuko ditu ikasleen prestakuntza koordinatzeko eta garatzeko.

6.– Lantokiko Prestakuntza moduluaren programazioa, bestalde, dagokion Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programaren curriculumean definitutakoaren arabera ezarriko dute ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak.

.....................(e)n, ....(e)ko .............aren .....(e)an

Ikastetxeko titularra edo entitatearen ordezkaria:
Izptua:

Enpresaren ordezkaria
Izptua:

II. ERANSKINA

LANKIDETZA HITZARMENA, TOKI ENTITATEEN, IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ENTITATEEN, HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMA EMATEN DUEN ……………………………………… ……………………………………….. IKASTETXE PRIBATUAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKOA

Vitoria-Gasteizen, .....(e)ko ..................aren ........(e)an.

Batetik, ........................................................................................................................................ jn./and.

........................................................................... entitatearen edo ikastetxe pribatuaren ordezkari gisa,

eta, bestetik, ................................................................................................................................ jn/and.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.

PARTE HARTU DUTE:

Bietatik lehenengoak, ..........................................................................................................................

entitatearen edo ikastetxe pribatuaren izenean.

Bigarrenak, aldiz, Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Sailaren izenean.

AZALDU DUTE:

Hitzarmen honen goiburuan aipatutako entitate edo ikastetxe pribatuak ....../...... ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak emateko baimena duela.

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetako Lantokiko Prestakuntza modulua enpresa zein lantegietan ematearen ondorioz gastuak sortuko zaizkie ikasleei zein enpresei. Beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kostu hori finantzatu nahi du, diru-laguntzak arautzen dituen urteko Aginduan argitaratutako baremoak oinarri harturik.

KLAUSULAK

***Lehenengoa***.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da hitzarmen hau izenpetu duen entitate edo ikastetxe pribatua entitate laguntzaile gisa onartzea, betiere Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua enpresa edo lantegietan egitea arautu zuen Aginduaren arabera. Horrela, Lantokiko Prestakuntza moduluan parte hartzen duten ikasleentzako zein enpresa edo lantegientzako diru-laguntzen ordainketa egoki kudeatuko da.

***Bigarrena***.– Alde bien betebeharrak.

Hitzarmen hau sinatzen duen entitate laguntzaileak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Laguntzen eskabideak jasotzea, jaso diren eguna adierazita beti, eta jaso ahalako hurrenkera errespetatuz.

b) Dokumentazioa gainbegiratzea eta, behar izanez gero, zuzentzeko eskatzea.

c) Laguntzen eskatzaileek eta onuradunek emandako datuen konfidentzialtasuna bermatzea eta diru-laguntzarako bakarrik erabiltzea, datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritakoa betez.

d) Ikasleek eta enpresek aurkeztutako diru-laguntzen eskabideak Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaritzari bidaltzea, deialdian ezarritako moduan eta epean.

e) Izapidetutako eskabideen ebazpena jakinaraztea, eta emandako diru-laguntzak banatzea.

f) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari justifikatzea onuradunei diru-laguntza ordaindu izana, diru-laguntza emateko Ebazpenean ezarritako moduan.

g) Kitapenaren bat ezinezkoa bada, dagokion kopurua itzultzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

h) Onuradunak diru-laguntza jaso duen unetik zenbatzen hasita, idazkariak, administratzaileak, edo horretarako izendatu den pertsonak hiru hilabeteko epea izango du Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan txosten ekonomikoa aurkezteko. Txosten horretan, diru-laguntzak ebazpenean zehaztutakoarekin bat etorriz banatu diren adierazi beharra dago. Hala izan ez bada, oker edo aldaketa horren zioak zehaztu beharko dira, baita ikasle edo enpresek itzulitako diru kopuruak banakatu ere, eta bi kasu horietan Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programaren profila adierazi beharko da. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari transferentzia bidez itzulitako diru kopuruaren ordainagiriaren kopia entregatu beharko da txostenarekin batera.

i) Administrazioak ezartzen dituen jarraibideak eta arauak betetzea, laguntzen kudeaketa egokia eta helburu zuzena bermatzeko.

j) Laguntza eman duen entitateak laguntzen kudeaketari buruz egiten dituen egiaztapen-jardunak onartzea, baita Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkien jardunak ere.

k) Era berean, deialdien Aginduetan finkatzen diren berariazko betekizunak betetzea.

Bestetik, Hasierako Lanbide Prestakuntzako programen barruan, Lantokiko Prestakuntza modulua emateko baimena izango du ikastetxeak ....../...... ikasturtean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, beraz, modulu hori emateagatik ikasle zein enpresa eta lantegiei sortu zaizkien gastuak finantzatzeko konpromisoa hartu du, diru-laguntzak arautzen dituen urteko Aginduan ezarritako baremoen arabera betiere.

***Hirugarrena.***– Hitzarmena suntsitzeko kausak.

Aldeek ez badituzte hitzarmen honen 2. klausulan bildutako betebeharrak betetzen, hitzarmen hau suntsituko da. Hori gertatzen bada, entitate edo ikastetxe pribatua ez dira aurrerantzean entitate laguntzailetzat hartuko, eta, horrenbestez, jaso duten dirua itzuli egin beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan ezarritakoa betez.

***Laugarrena.***– Indarraldia.

Diru-laguntzen programa hau ....../...... ikasturtean izango da indarrean eta, urtean urtero, automatikoki luzatuko da, betiere aurrekontuek horretarako aukera ematen badute eta aldeetako batek hitzarmenaren amaiera iragarri ez badu.

Hitzarmen honetan jasotakoarekin bat datozela agertzeko, bi aldeek hitzarmen honen bi laginak sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

Jn./and.:

Entitate edo ikastetxe pribatuaren legezko ordezkaria

Jn./and.:

III. ERANSKINA

HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMAREN PRESTAKUNTZA FASE PRAKTIKOA EGITEKO IKASLEAK PRAKTIKETAN HARTU DITUZTEN ENPRESENTZAKO DIRU LAGUNTZEN ESKABIDE ORRIA

.................................................................. enpresa edo lantegiaren laguntza-eskabidea ........................ jauna/andreak, ............ NAN duenak,

Honako enpresa edo lantegi honen legezko ordezkari gisa: .............................................................................

............... IFK/IFZ duena, ...............................(e)ko .......................... kaleko ........ zenbakian egoitza duena,

posta-kodea ........ Telefonoa ................... Kontu-zenbakia:

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bankua | | | | | Bulegoa | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KD | | | K/K | | | | | | | | | | |

Aurreko ikasturteko diru-laguntzetarako deialdian parte hartu zuen: BAI_ EZ_

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan enpresetan edo lantegietan Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko diru-laguntzen deia egiten duen …………………… Agindua betez, ................................ euroko (A+B) diru-laguntza eskatzen dut, honako ikasle hauek hartu izanagatik:

| Ikaslearen izena | Sexua | Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa | Ordu kopurua | Eskatutako zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Jn./And.: ........................................................................................................................................

................................................................................................................................ enpresa edo lantegiko titular naizen aldetik, zinpean aitortzen dut ez dudala diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen didan zigor administratibo edo penalik, eta ez dudala diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik nire gain –Emakume-en eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zigortutako sexugatiko bereizketak barne–.

Zin egiten dut, halaber, ez dudala beste Administrazio batetik diru-laguntzarik jasotzen deialdi honen xede beragatik.

Era berean, zinpean aitortzen dut deialdi honetara biltzeko aurkeztu ditudan datuak egiazkoak direla.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut .............(e)n, 20...(e)ko ...................(a)ren .....(e)an

Sinadura

Entitatearen ordezkariaren oniritzia

Ikastetxeko zuzendariaren oniritzia eta zigilua

IV. ERANSKINA

## HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMEN LANTOKIKO PRESTAKUNTZA MODULUA ENPRESETAN EDO LANTEGIETAN EGIN DUTEN IKASLEENTZAKO DIRU LAGUNTZEN ESKABIDE ORRIA

Honako ikaslearentzako diru-laguntza: ..........................................................................................................
............ NAN duena, ........................................................................................................ ikastetxekoa,
helbidea (kalea, zenbakia, posta-kodea, herria): ..............................................................................................
Bankuko datuak:
Kontuaren titularraren izena: ..........................................................................................................................

| Bankua | | | | | Bulegoa | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

| KD | | | K/K | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………(e)n Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programan Lantokiko Prestakuntza modulua enpresetan edo lantegietan egiteko diru-laguntzak emateko deia egiten duen ………………………………… Agindua betez, …………………….. euroko diru-laguntza eskatzen dut, ……………………………………….n (herria) kokatutako lantokirako joan-etorriek sortutako gastuengatik.

| Lantokira joandako egunen kopurua | Eskatutako zenbatekoa |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

...........................................................................................................jaunak/andreak, sexua ..................
.................................................................................................................................... ikastetxeko ikasleak, zinpean aitortzen dut ez dudala diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen didan zigor administratibo edo penalik, eta ez dudala diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik nire gain –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez zigortutako sexugatiko bereizketak barne–.

Zin egiten dut, halaber, ez dudala beste Administrazio batetik diru-laguntzarik jasotzen deialdi honen xede beragatik.

Era berean, zinpean aitortzen dut deialdi honetara biltzeko aurkeztu ditudan datuak egiazkoak direla.

Eta hala jasota gera dadin sinatzen dut .....................(e)n, ....(e)ko ................aren ....(e)an.

Ikaslearen, gurasoaren, edo legezko tutorearen sinadura:

Oniritzia:

Entitatearen ordezkaria

Ikastetxeko zuzendaria eta zigilua

*ANEXO I*

*ACUERDO DE COLABORACIÓN ENTRE LA EMPRESA Y LA ENTIDAD LOCAL, ENTIDAD PRIVADA SIN ÁNIMO DE LUCRO, CENTRO PÚBLICO O PRIVADO PARA LA REALIZACIÓN DE LA FASE DE FORMACIÓN PRÁCTICA EN EMPRESAS O TALLERES DE LOS PROGRAMAS DE CUALIFICACIÓN PROFESIONAL INICIAL*

*De una parte D./Dña. ..........................................................................................................*

*titular del centro / representante de la entidad: ....................................................................*

*......................................................................................................................................*

*y de otra D./Dña. ..............................................................................................................*

*como representante de la empresa o taller ..............................................................................*

*......................................................................................................................................*

*DECLARAN:*

*– Que se reconocen recíprocamente capacidad y legitimación para acordar.*

*– Que el objetivo del presente acuerdo es posibilitar a los alumnos o alumnas la realización de la Fase de Formación Práctica en empresas o talleres, completando así la formación y la adquisición de las capacidades requeridas en el título.*

*ACUERDAN:*

*– Suscribir el presente Acuerdo de Colaboración para la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres de los Programas de Cualificación Profesional Inicial, de conformidad con la Orden ....../...... por el que se regula la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT) en empresas o talleres, en los Programas de Cualificación Profesional Inicial, que ambas partes conocen y acatan*

*CLÁUSULAS*

*1.– Los alumnos o alumnas no tendrán, en ningún caso, vinculación o relación laboral con la empresa en que realizan el Módulo de Formación en Centro de Trabajo.*

*2.– Los alumnos o alumnas no percibirán de la empresa retribución alguna por las actividades realizadas en el desarrollo de las prácticas.*

*3.– La empresa o taller velará por el cumplimiento de la legislación aplicable al alumnado en materia de seguridad e higiene en el trabajo.*

*4.– Cualquier eventualidad de accidente que pudiera producirse en el centro de trabajo o desplazamiento al mismo será contemplado a tenor del Seguro Escolar y de otro complementario suscrito por la Administración Vasca.*

*5.– La empresa o taller nombrará al instructor o instructora o instructores necesarios, con la debida formación, para la coordinación y desarrollo de la formación del alumnado.*

*6.– La programación del Módulo de Formación en Centro de Trabajo se establecerá, de acuerdo con lo definido en el currículo del Programa de Cualificación Profesional Inicial correspondiente, conjuntamente por el tutor o tutora del centro y el instructor o instructora de la empresa.*

*En ................., a .... de ............... de ......*

*El/la titular del centro educativo o EL/LA REPRESENTANTE de la entidad:*
*Fdo.:*

*El/la representante de la empresa*
*Fdo.:*

*ANEXO II*

*CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LAS ENTIDADES LOCALES, ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO, EL CENTRO PRIVADO*

*...................................................................*

*QUE IMPARTE PROGRAMAS DE CUALIFICACIÓN PROFESIONAL INICIAL Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.*

*En Vitoria-Gasteiz, a ....... de .......................... de ......*

*De una parte D./Dña. ...............................................................................................................................*

*en representación de la entidad o del centro privado ...................................................................................*

*Y de otra D./Dña. ..................................................................................................................................*

*Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.*

*INTERVIENEN:*

*El/la primero/a en nombre y representación de la entidad o el centro privado ....................................................*

*El/la segundo/a en nombre y representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.*

*EXPONEN:*

*Que la entidad o el centro privado que figura en el encabezamiento del presente convenio tiene autorizada la impartición de Programas de Cualificación Profesional Inicial, el curso académico ....../........*

*Que es voluntad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación financiar el coste generado a alumnado y empresas por la impartición del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en empresas o talleres de los Programas de Cualificación Profesional Inicial según los baremos publicados en la Orden anual reguladora de las subvenciones.*

*CLÁUSULAS*

***Primera**.– Objeto del convenio.*

*El objeto del presente convenio es, de conformidad con la presente Orden de regulación del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT), en los Programas de Cualificación Profesional Inicial, la aceptación de la condición de entidad colaboradora de la entidad o centro privado suscribiente del mismo, a los efectos de gestionar el pago de las subvenciones destinadas a los alumnos o alumnas y empresas o talleres que participan en el Módulo de Formación en Centro de Trabajo.*

***Segunda**.– Obligaciones de las partes.*

*De una parte, la entidad colaboradora suscribiente del presente convenio se compromete a:*

*a) Recibir las solicitudes de las ayudas, dejando constancia, en todo caso, de la fecha de entrada de las solicitudes y respetando el orden temporal de recepción.*

*b) Supervisar la documentación y, en su caso, requerir su subsanación.*

*c) Garantizar la confidencialidad de los datos suministrados por las personas solicitantes y beneficiarios de las ayudas y su uso exclusivo para los fines de la subvención, conforme a lo dispuesto en la normativa reguladora de la protección de datos de carácter personal.*

*d) Remitir a la Dirección de Aprendizaje Permanente, en la forma y plazo que establezca la correspondiente convocatoria, las solicitudes de ayudas presentadas por alumnado y empresas.*

*e) Notificar la resolución de las solicitudes tramitadas, así como realizar la distribución de las subvenciones concedidas.*

*f) Justificar ante el Departamento de Educación, Universidades e Investigación el pago de la subvención a los beneficiarios o beneficiarias de la misma en los términos establecidos en la Resolución de concesión.*

*g) Proceder a la devolución de la cantidad correspondiente a la Tesorería General del País Vasco en el caso de que alguna liquidación no sea posible.*

*h) En plazo máximo de tres meses, contado a partir de la recepción de la subvención, el secretario o secretaria, el administrador o administradora o persona designada al efecto deberá presentar en la Dirección de Innovación Educativa una memoria económica indicando si la distribución ha sido realizada de acuerdo al contenido de la resolución o, en caso de no serlo, indicar los motivos, realizando el desglose de las cantidades devueltas por los alumnos y alumnas, y empresas, en ambos con indicación del perfil del Programa de Cualificación Profesional Inicial, adjuntando copia de la transferencia realizada a la Tesorería General del País Vasco por el importe total devuelto.*

*i) Cumplir con las instrucciones y directrices que se establezcan por la Administración, a fin de garantizar la correcta gestión y el buen fin de las ayudas.*

*j) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación que, respecto a la gestión de la Convocatoria de ayudas, pueda efectuar la entidad concedente y a las que corresponden a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.*

*k) Cumplir asimismo los requisitos específicos que se establezcan en las distintas Órdenes de convocatoria.*

*De otra parte, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco se compromete a financiar el coste generado a alumnado y empresas o talleres por la impartición del Módulo de Formación en Centro de Trabajo de los Programas de Cualificación Profesional Inicial autorizados al centro el curso académico ......../........, según los baremos establecidos en la Orden anual reguladora de las subvenciones.*

***Tercera.*** *– Causas de resolución del convenio.*

*Cualquier incumplimiento de las obligaciones de las partes contenidas en la cláusula 2.ª será motivo de resolución del presente convenio, perdiendo la entidad o el centro privado la consideración de entidad colaboradora, debiendo reintegrar las cantidades recibidas según lo establecido en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.*

***Cuarta.*** *– Vigencia.*

*El presente programa subvencional estará vigente durante el curso ....../......, prorrogándose anualmente de forma automática, siempre que exista disponibilidad presupuestaria y ninguna de las partes manifieste su voluntad de denunciarlo.*

*Y en prueba de conformidad y aceptación, las dos partes firman, por duplicado, el presente convenio, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.*

*Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.*

*D./Dña.:*

*Representante de la entidad o centro privado*

*D./Dña.:*

*ANEXO III*

*SOLICITUD DE AYUDAS PARA EMPRESAS QUE COLABORAN EN LA ACOGIDA DE ALUMNADO PARA LA REALIZACIÓN DE LA FASE DE FORMACIÓN PRÁCTICA EN EMPRESAS O TALLERES DE PROGRAMAS DE CUALIFICACIÓN PROFESIONAL INICIAL*

*Solicitud de ayuda de la empresa o taller ..........................................................................................................*

*D./Dña. ..............................................................................................................................................................*

*con DNI ...............en calidad de titular/representante legal de la empresa, taller ..................................................*

*con CIF/NIF .................... con domicilio en .................. calle ................................., n.º ...... código postal ............ Tfno. ............... N.º cuenta: ......................*

| Banco | | | | | Agencia | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

| DC | | | C/C | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

*Participó en la convocatoria de ayudas del curso anterior: SÍ _ NO _*

*De conformidad con la Orden de .................... por la que se convocan ayudas por la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT) en empresas o talleres, en los programas de Iniciación Profesional, solicito una ayuda de ...............euros (A+B) por la incorporación de los siguientes alumnos o alumnas:*

| *Nombre del alumno o alumna* | *Sexo* | *Programa de Cualificación Profesional Inicial* | *N.º de Horas* | *Importe solicitado* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

*D./Dña. ..............................................................................................................................................................*

*titular de la empresa, taller ..................................................................................................................................*

*declaro que no me encuentro sancionado/a administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni me hallo incurso/a en prohibición legal alguna que me inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

*Declaro, también, que no he percibido otras ayudas establecidas para el mismo fin procedentes de cualquier otra administración.*

*Asimismo realizo declaración jurada mediante la que hago constar que los datos aportados al concurrir a la presente convocatoria son ciertos.*

*Y para que así conste lo firmo en ..........., a ..... de ...................... de 20....*

*Firma*

*V.º B.º el representante de la entidad*

*El/la director/a del centro educativo y sello*

*ANEXO IV*

*SOLICITUD DE AYUDAS PARA ALUMNADO POR LA REALIZACIÓN DEL MÓDULO DE FORMACIÓN EN CENTRO DE TRABAJO EN EMPRESAS Y TALLERES DE PROGRAMAS DE CUALIFICACIÓN PROFESIONAL INICIAL*

*Solicitud de ayuda al alumno o alumna: ...........................................................................................................*

*con DNI ................. del centro educativo ........................................................................................................*

*con domicilio en (calle /n.º / código postal / oblación): .......................................................................................*

*Datos bancarios:*

*Nombre del titular de la cuenta: ..........................................................................................................................*

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Banco* | | | | | *Agencia* | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *DC* | | | *C/C* | | | | | | | | | | |

*De conformidad con la Orden de .............................. por la que se convocan ayudas por la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT) en empresas o talleres, en el Programa de Cualificación Profesional Inicial en ...............................*

*solicito una ayuda de ................ euros por los gastos añadidos por desplazamiento al centro de trabajo ubicado en ................. (Población)*

| *N.º de días de desplazamiento* | *Importe solicitado* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

*D./Dña. ........................................................................................................................................ sexo ........*

*alumno/a del centro ...............................................................................................................................................*

*Declaro que no me encuentro sancionado/a administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni me hallo incurso/a en prohibición legal alguna que me inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

*Declaro, también, que no he percibido otras ayudas establecidas para el mismo fin procedentes de cualquier otra administración.*

*Asimismo realizo declaración jurada mediante la que hago constar que los datos aportados al concurrir a la presente convocatoria son ciertos.*

*Y para que así conste lo firmo en ........................ a ....... de .................. de 201...*

*Firma del alumno/a, padre, madre o tutor legal:*

*V.º B.º*

*El representante de la entidad*

*El/la director/a del centro educativo y sello*